

## NIRE LANA

DENBORA: 4 ordu

### IKASKETA-JARDUERAK

#### 0 NIRE LANA

**Helburua:** Lan kontzeptuaz hausnartzea.

**Deskripzioa:** Azaleko marrazkiak behatu ondoren, islatzen diren jarduera bakoitzari buruzko solasaldia abiatuko da.

**Orientabideak:** neska-mutilek egunero egiten dituzten jarduera batzuk islatzen dira irudietan. Solasaldian zehar, neska-mutilek zein pertsona helduek etxean zein etxetik kanpo egiten dituzten beste jarduera batzuk ere aterako dira. Jarduera horiek guztiak arbelean idatzi, eta ondoren, aztertu: lana, jolasa, aisialdia; zer dira? Eskolan egiten den jarduera aztertzea komeni da.

Era berean, lan ordainduak eta ez ordainduak bereizi behar dira. Kontuan hartu lan batzuk boluntarioak edo etxeakoak izan daitezkeela, eta adituzera eman denak direla beharrezkoak denon bizimodua hobetzeko.

#### 1 NON LAN EGITEN DUGU?

**Helburua:** neska-mutilek eta beren familiek leku askotan lan egiten dutela konprobatzea.

**Deskripzioa:** Irudiak behatu ondoren sortuko den solasaldian oinarrituz, bakoitzak ondorengo ariketa egingo du bere errealitatea eta familiarena kontuan hartuz. Ondoren, batera jarriko da.

**Orientabideak:** Neska-mutilek eta beren familiek non edo han lan egiten dutela ikusi behar dute: etxean, eskolan, elkartean. Saiatu ohar daitezzen, kolaborazioa eta talde-lana oso garrantzitsua direla jarduera asko egiteko eta adibideak proposatzeko. Ikus dezatela, egunean zehar denon onerako lanean ari diren hainbat eta hainbat jenderekin egiten dugula topo: dendan, garraioan, era askotako zaintza-motatan, etab. Nahi izanez gero, ariketa hau familiarekin egin daiteke, etxean.

Denbora baldin badago, horma-irudi bat osa daiteke neska-mutilek ateratako informazioa erabiliz.

#### 2 NIRE FAMILIAK EGINDAKO LANAREN BIDEZ IRABAZITAKO DIRUAZ GAUZA ASKO ESKURA DAITEZKE

**Helburua:** Kontuan hartzea jende guztiak bete behar dituela bere oinarritzko premiak, eta ordaindutako lana dela horretarako bidea (gutxienez eskura izateko).

**Deskripzioa:** Hasierako esaeran abiatuta, neska-mutilek esandako guztia arbelean idatz daiteke. Ondoren, bakoitzak marraztu egingo ditu. Ondorengo alderdi hauek islatzea gomendatzen da: elikadura, osasuna, etxebizitza, eskola, ur edangarria.

Marraztu ondoren, bizitzeko ezinbestekoak direnak aipatu eta zirkulu baten barruan inguratuko dira. Bateran jarri, eta finkatu: denok daukagu bizitzeko ezinbestekoak diren premiak, eta bete egin behar ditugu.

**Orientabideak:** Neska eta mutilek hausnarketa egingo dute: oso garrantzitsua da etxean edo eskolan egiten dugun lana ondo betetzea; zerbait ondo egiten denean, norbaitek eskerrak ematen dituztenean, etab. ondo sentitzen da; etxeak egiten duten lanaren truke, bizitzeko ezinbestekoak diren gauza batzuk erosteko dirua jasotzen da, hau da EZINBESTEKO PREMIAK eskura daitezke. Hala ere, beste gauza batzuk ere garrantzitsuak edo atseginak diren arren, denak ez dira bizitzeko ezinbestekoak. Aitona-amonei edo galdera egin ahal zaie: gazte zirenean nola bizi ziren, gaur egun dauden gauza batzuk ba ote zituzten (jostailuak, liburuak, elikagaiak, etab.). Kontuan hartu: lana pertsona guztiek duten ondasuna eta eskubidea da, erantzukizun pertsonala eta kolektiboa; gainera, norberaren gaitasun pertsonalak garatzeko balio du, eta gizartearen onerako lagungarria izan daiteke.

#### 3 ASHA ETA TESA-REN ISTORIA

**Helburua:** Lan duina ez izateagatik beren ezinbesteko premiak asetzetik ez zuten pertsona batzuen bizitza ezagutzea.

**Deskripzioa:** Asha-ren mezutik abiatuz, munduan milaka pertsonen bizi dituzten arazoak ezagut ditzakegu.

**Orientabideak:** Mezua irakurri eta galdera batzuk egin, hausnartzeko: Non lan egiten du Asha-k? Ezagutzen al duzu Asha-k dituen arazoak duen familiaren bat?. Neska-mutirik galderari erantzuten saiatuko dira, hitz berrien esanahia bilatuko dute: adibidez, kooperatiba.

Lana galtzeak oinarritzko premiak asetzeko arazoa sortzen duela ikusi. Garrantzitsua: bizitzeko ezinbestekoak diren beste premia batzuk ere badira; adibidez, osasun-zerbitzuak eta hezkuntza. Ikasleek beste elementu batzuk aipatuko dituzte...

---

#### **4 ZER IKASI DUGU?**

**Helburua:** Aipatu diren kontzeptuak laburbildu eta pertsona guztiek lana izan dezaten proposamenak egitea.

**Deskripzioa:** Banaka, monografikoan landutako ideia nagusiak laburbiltzen dituzten esaerak osatuko dira.


#### **ETA ZER EGIN DEZAKEGU GUK?**

Ondoko web orria kontsultatu: <http://www.intremonoxfam.org/conectandomundos>. Hor aurkituko duzu Lehen Mailako Hezkuntzako lehen ziklorako proposamen zehatza.

**Orientabideak:** Intermón Oxfam-en, "Munduak konektatzen" izeneko Internet bidezko eskolarteko komunikazio-proposamenarekin parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Tessa eta Asha-rekin mezu-trukean abiatuz —pertsonaia birtualak izango dira—, zure ikasleek gure protagonistei gertatutako arazoak sakondu eta konponbideak proposa ditzakete.

LMHko 1. ZIKLOA

# NIRE LANA





# NON LAN EGITEN DUGU?

Nire izena:

Honela lan egiten dut etxean

eta horrela ikastetxean

Hau da nire familia:

Nire ama:

eta bere lana:

Nire aita:

eta bere lana:

nire da

eta bere lana:

nire da

eta bere lana:

2

# NIRE FAMILIAK LAN EGINDA LORTUTAKO DIRUAZ HAUXE EROSI AHAL DUQU...



Egin zirkulu bat bizitzeko ezinbestekoak diren gauzen inguruan

**GUZTIOK BEHAR DITUGU BIZITZEKO!**

Kaixo, Asha naiz. Joan den urtean Bangladesh-eko lantegi batean ari nintzen lanean, elastikoak josten. Irabazitako diruaz ia ez neukan seme-alabentzako jatekoa erosteko. Tessa alaba nagusiak eskola utzi behar izan zuen niri laguntzeko...



Denok daukagu eskubidea gure funtsezko premiak asetzeko aukera emango digun lana edukitzeko!!

Orain Bac Aarong izeneko Bidezko Merkataritzako erakunde batean lan egiten dut. 350.000 lagun baino gehiago ari dira artisautza egiten, elastikoak eta beste jantzi batzuk josten. Orain soldata justua jasotzen dut nire lanaren truke, nire alaba eskolara joaten da eta medikuarengana era joaten gara.



4

## ZER IKASI DUGU?

Kaixo, nire izena [ ]  
eta hauxe ikusi dut egunotan:

Nire lana garrantzitsua dela, zeren

[ ]

Nire familiakoen lana garrantzitsua dela, zeren

[ ]


Lan egitea [ ] guztien eskubidea dela

baina pertsona askok munduane

[ ]

# ETA ZER EGIN DEZAKEGU DUGU GUK?

## Intermón Oxfam-en Eskolako esku-hartze telematikorako proposamena



**conectando\_mundos**



**Arauk alda daitezke, zure eskolak**

**MUNDUAK KONEKTATZEN programan parte har dezake.**

**[www.conectandomundos.org](http://www.conectandomundos.org)**